

Behar-beharrezkoak gara!

Basogintza, egurraren ustiaketa, sektoreari laguntzeko zerbitzuak eta mendien garbiketak funtsezko jardueren artean sartu ditu Gobernuak COVID-19 pandemiaren kudeaketan.

Pandemiak zerbait agerian utzi badu, zera da: gure egunerokoan ia baloratzen ez ditugun hainbat sektore, nahiz eta isilean aritu, funtsezkoak direla eta horixe gertatu da gurekin. Gobernuak behar-beharrezkoak garelako erabaki du pandemiaren kudeaketan. Funtsezko zerbitzuen artean, basogintza, egurraren ustiaketa, sektoreari laguntzeko zerbitzuak eta mendi garbiketak sartu ditu.

Baina zergatik? Jakin, ia guztiok badakigu, nahiz eta jabetu ez, komunekok papera zelulosarekin egiten dela eta, beraz, egurra duela atzean. COVID-19aren pandemiak eztanda egin zuenean, jendea buru-belarri joan zen dendetara komuneko papera erostera. Produktu arrunta, normalean ezkutuan erosten den horietakoa, baina garrantzitsua, zalantzarik gabe.

Are garrantzitsuagoak izan dira pandemia honetan beste hainbat produktu sanitario, hala nola, maskarak, kutsaduraz babesteko jantzi izan ditugun maskarak, zelulosaz eginak ere.

Baina bada gehiago. Biomasa, hainbat osasun zentro eta adineko pertsonen egoitzetan geroz eta gehiago zabaltzen ari den erregaia, pinuen ezpaletatik lortzen dugu ere. Biomasaren erabilera erregai bezala zabaltzen ari da eta aldaketa klimatikoaren kontrako estrategiaren baitan badu bere funtzioa. Erregai berriztagarria eta naturala, guk zaindu eta birlandatzen ditugun basoetatik datorrena.

Gipuzkoako Baso Elkartea (GEBE) ere lanean aritu da, gelditu gabe. Baso jabeen eskaintzen diren zerbitzuak ere funtsezkoak zirela erabaki zuen Gobernuak. Mendi garbiketek ere nolana hiko garrantzia dute udari begira, sute arriskua murrizten baitute.

ASOCIACIÓN DE PROPIETARIOS
FORESTALES DE GIPUZKOA